

### **“Lehena.- Onuradunak**

Zaldibarko Elizatean erroldatutako langabetuak.

### **Bigarrena.- xedea**

Langabetuen joan-etorriak ordaintzen laguntzea, bidaia horiek lana bilatzeko prestakuntzarako ekintzetarako erabiltzen badira.

### **Hirugarrena.- Oinarri arautzaileak**

Baliabide ekonomiko nahikorik ez duten pertsonen 2021eko ekitaldian laguntzak emateko osatu diren oinarriak eta langabetuen joan-etorriak ordaintzen laguntzeko oinarri zehatzak 2021eko otsailaren 23ko Tokiko Gobernu batzarrean 35. zenbakiko erabaki bidez onartu ziren eta 2021eko martxoaren 9ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (46. zenbakia) argitaratu

### **Laugarrena.- Kopurua**

Guztira: 10.000€. 2311/480.02 aurrekontuko partida

### **Bosgarrena.- Eskaerak aurkezteko epea.**

Eskaerak aurkezteko epea: 2021eko urriaren 10etik azaroaren 10a arte.

Salbuespen gisa, eta Durangoko Merindadeko Amankomunazgoaren gizarte-zerbitzuen aldeko txostena aurkeztuz, oinarriak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera eskatu ahal izango da laguntza.”